



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

EDIKTUA

Ondasun higiezin gaineko zergari buruz eta ondasun higiezin hiritarren balio katastralen berrikuspenari buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2016ko irailaren 20an egindako batzaraldian, ondoko erabakia hartu zuen.

«**Lehena.-** Onartzea Gipuzkoako lurralde historikoko udalerrietarako ondasun higiezin hiritarretako lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzien berrikuspena.

Bigarrena.- 15 eguneko epean ponentziak jendaurrean jartzea, interesatuek hautazko berraztertze errekurtsua jarri ahal izan dezaten Foru Aldundian edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkez dezaten Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal bakoitzaren ediktuen bidez iragartzea ponentziak jendaurrean jarri direla aurreko apartatuan aipatu bezala.»

Ponentzia horiek dagokien udaletan eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Udal Zergen Zerbitzuaren bulegoetan (Okendo kalea, 20. Donostia) jendaurrean jarri direla jakinarazteko, 2016ko irailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu da. Hortaz, erabakiaren bigarren apartatuan aipatzen den 15 eguneko epea 2016ko irailaren 23tik urriaren 13ra arte, biak barne, izango da. Epe horretan interesatuek ebazpen horren aurka hautazko berraztertze errekurtsua aurkeztu dezakete Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren aurrean, edo bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu dezakete Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan, beti ere Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duen eran.

Halaxe hau denen aurrean argitaratzen da behar diren ondorioetarako.

Orendainen, 2016ko irailaren 22a.- Alkate-lehendakaria